

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Foru Aginduak

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

5.065

**390/2003 FORU AGINDUA, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, uztailaren 22koa. Honen bidez onartzen da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 848 eredu, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa.**

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 5.1.c) artikulua, Toki Ogasunak aldatzeko martxoaren 31ko 12/2003 Foru Arauak eman dion idazketaren arabera, honako salbuespen hau ezartzen du: aldi berean Pertsona Fiskoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak direnak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatzen diren sozietate zibilak edo entitateak direnak zerga honetatik salbuetsita egongo dira, beren eragiketen bolumena 2.000.000 euro baino gutxiagokoa bada. Salbuespen hori ezarri ahal izango zaie baita ere Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasibo izanik Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergapekoak ere badira.

Edonola ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea, ez zuzen ez zeharka, letra honetan bolumenaren gainean zehazten den baldintza betetzen ez duten enpresen partaidetza (100eko 25 baino gehiago). Salbuespen dira 24/1996 Foru Arauaren (uztailaren 5ekoa, Sozietateen gaineko Zergarena) 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, zehazten diren arrisku-kapitaleko sozietate edo funtsak edo enpresak sustatzeko sozietateak, baldin eta partaidetza haien sozietate xedea betetzearen ondorio zuzena bada.

12/2003 Foru Arauaren bitartez 43/1989 Foru Arauaren 13.2 artikulua eman zaion idazketa berriaren arabera artikulua horren hirugarren paragrafoan ezartzen duenez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren salbuespen berria aplikatu ezin zaien zergadunek eragiketa bolumena adierazi beharko diote Arabako Foru Aldundiari.

Era berean, subjektu pasiboek eragiketen bolumenaren izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin aldakuntza horrek berarekin badakar salbuespen berria aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa edo foru arau honen 9. artikuluko 1. idatz-zatian zehaztutako haztaketa koefizientea aplikatzearen ondorioetarako kontuan izan beharreko zatiko aldaketa.

Uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 13.2 artikulua arabe-ara, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarri beharko du komunikazio horiek zein kasutan aurkeztu behar diren, zein izango den komunikazio horien edukia, noiz eta nola aurkeztu behar diren komunikazioak, eta zein kasutan aurkeztu beharko diren telematika bidez.

Agiten diren zerga aitortenei esker, Zergen Administrazioak bada-ki, kasu askotan, zein den Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboek eragiketen bolumenaren zenbatekoa; hori dela-eta, jakinarazpena aurkeztea bakarrik eskatuko zaie. Jakinarazpen horretan salbuespen berri horretarako baldintzak betetzen direla adierazi beharko da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak badira eta zerga horien aitortpenak Arabako Lurralde Historikoan aurkezten ez badituzte.

Ondorioz, subjektu pasibo horiek beren eragiketen bolumena jakinarazi beharko dute, eta era berean betebeharrak ezarri ahal izango zaie Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatzen diren sozietate zibil eta entitateetako bazkide, oinorde, erkide eta partaideei.

Horregatik guztiagatik, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak (martxoaren 31ko 12/2003 Foru Arauak ezarritako idazketa) 5.3 eta 13.2 artikuluetan jasotako habilitazio guztiez baliatuz,

XEDATU DUT:

**Lehena.- 848 eredu onartzea.**

Subjektu pasiboek eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinarazteko 848 eredu onartzen da, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratuaren 5.1.c) artikuluan aurreikusitako salbuespena ezarri ahal izateko. Testu Bateratua Foru Agindu honen eranskinean dator.

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Ordenes Forales

#### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

5.065

**ORDEN FORAL 390/2003, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 22 de julio, por la que se aprueba el modelo 848 del Impuesto sobre Actividades Económicas de comunicación del importe del volumen de operaciones.**

El artículo 5.1.c) de la Norma Foral 43/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Actividades Económicas, en la redacción dada al mismo por la Norma Foral 12/2003, de 31 de marzo de modificación de las Haciendas Locales, introduce la exención en el citado impuesto para los sujetos pasivos que sean, a su vez, contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades, o sean sociedades civiles o entidades del artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria, cuando tengan un volumen de operaciones inferior a 2.000.000 de euros, siendo también aplicable este precepto a los sujetos pasivos del Impuesto sobre Actividades Económicas que sean contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de No Residentes

En todo caso, será requisito para la aplicación de esta exención que los sujetos pasivos no se hallen participados directa o indirectamente en más de un 25 por 100 por empresas que no reúnan el requisito de volumen de operaciones previsto en esta letra, excepto que se trate de fondos o sociedades de capital riesgo o sociedades de promoción de empresas a que se refieren los artículos 59 y 60, respectivamente, de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades cuando la participación sea consecuencia del cumplimiento del objeto social de estas últimas.

La nueva redacción dada en la Norma Foral 12/2003 al artículo 13.2 de la Norma Foral 43/1989, establece, a su vez, en su tercer párrafo, que los sujetos pasivos a los que no resulte de aplicación la nueva exención del Impuesto sobre Actividades Económicas deberán comunicar a la Diputación Foral de Álava su volumen de operaciones.

Asimismo, los sujetos pasivos deberán comunicar las variaciones que se produzcan en su volumen de operaciones cuando tal variación suponga modificaciones en la aplicación de la nueva exención o en el tramo a considerar a efectos de la aplicación del coeficiente de ponderación previsto en el apartado 1 del artículo 9 de la citada Norma Foral.

De acuerdo con el artículo 13.2 de la Norma Foral 43/1989, de 19 de julio, corresponde al Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos establecer los supuestos en que deben presentarse estas comunicaciones, su contenido, forma y plazo de presentación, así como los supuestos en que habrán de presentarse por vía telemática.

Dado que el importe del volumen de operaciones de los sujetos pasivos del Impuesto sobre Actividades Económicas es conocido en muchos casos por la Administración Tributaria a través de la presentación de sus correspondientes declaraciones tributarias, sólo resulta necesario exigir la presentación de la comunicación, en la que se haga constar que se cumplen los requisitos para la aplicación de la nueva exención, cuando se trate de sujetos pasivos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de No Residentes que no sean contribuyentes por estos impuestos en el Territorio Histórico de Álava.

En consecuencia, dichos sujetos pasivos deberán comunicar su volumen de operaciones, siendo aplicable, asimismo, la mencionada obligación, a los socios, herederos, comuneros o partícipes de las sociedades civiles y de las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

Por todo ello, y haciendo uso de las habilitaciones contenidas en los artículos 5.3 y 13.2 de la Norma Foral 43/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Actividades Económicas, en su redacción establecida por la Norma Foral 12/2003, de 31 de marzo,

DISPONGO:

**Primero.- Aprobación del modelo 848.**

Se aprueba el modelo 848 de comunicación del importe del volumen de operaciones del sujeto pasivo en orden a la aplicación de la exención prevista en el artículo 5.1.c) del Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, que figura como anexo a la presente Orden Foral.

Jakinarazpenerako eredu honek bi ale ditu: bata, Administrazioarentzat, eta bestea, interesdunarentzat.

**Bigarren.- 848 eredu aurkeztu beharko dutenak.**

**Bat.** 848 eredu aurkeztu beharko dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapekoak izanik Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboak direnek, baldin eta zerga horien aitortpenak Arabako Lurralde Historikoan aurkeztu ez badituzte.

**Bi.** Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33. artikuluan aipatzen diren sozietate zibil eta entitateen kasuan, aurreko idatz-zatian aipatzen den betebeharrari dagokionez, sozietate zibil eta entitate horietako bazkide, oinorde, erkide eta partaideek aurkeztu beharko dute 848 eredu.

Halere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33. artikuluan aipatzen diren sozietate zibilek eta entitateek eragiketen bolumenaren zenbatekoa Arabako Lurralde Historikoan aurkezturiko zerga aitortpenen batean iada aurkeztu badute, ez dute 848 eredu aurkeztu beharrik izango.

**Hiru.** Merkataritzako Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen sozietate taldeen kasuan, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinarazi sozietate nagusiek jakinarazi beharko dute, baina 848 ereduaren taldea osatzen duten sozietate guztien Identifikazio Fiskaleko Zenbakia agertu beharko da.

**Hirugarren.- 848 eredu aurkezteko lekua eta epea.**

**Bat.** 848 eredu Arabako Foru Aldundiaren Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan aurkeztu ahal izango da. Era berean, ohiko postaz zein posta ziurtatuaren bidez ere bidali ahal izango da eredu esandako bulegora.

**Bi.** 848 eredu aurkeztu jakinarazpen honek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari eragingo dion urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra bitarteko epean aurkeztu beharko da, biak barne.

**Laugarren.- Subjektu pasiboaren eragiketen bolumenaren zenbatekoa zehaztea.**

**Bat.** Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Kontzertu Ekonomikoari jarraituta zehaztuko da eragiketen bolumena.

**Bi.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko edo Sozietateen gaineko zergen subjektu pasiboentzat edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunentzat, eragiketen bolumena izango da zerga horiengatik aitortpenak aurkezteko epea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga sortu aurreko urtean amaitu den zergaldikoa.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33. artikuluan zehazten diren sozietate zibil eta erakundeentzat, eragiketen bolumena Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga sortzen den urtearen azkenurrekoari dagokiona izango da.

Zergaldi horrek urte naturala baino gutxiago irauten badu, eragiketen bolumena urtebetera igaroko da.

**Hiru.** Subjektu pasiboaren eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko, hark gauzatuak jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da kontuan.

Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraikiz, erakunde sozietate taldearen zati bada, lehen adierazitako kopuruak talde horri dagozkion erakunde multzoarenak izango dira. Irizpide hori aplikatuko da, era berean, pertsona fisiko bat bere kabuz edota beste pertsona fisiko batzuekin (ahaidetasunez, zuzeneko nahiz zeharkako ahaidetasunez, edo bigarren maila bitarteko, bigarren maila barne, odol nahiz ezkon ahaidetasunez) batera, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan zehazten diren kasuetako bat medio beste erakunde batzuekiko harremanetan badaude.

Aurreko paragrafoan zehaztutakoaren ondorioetarako, honako hauek dira Merkataritza Kodeko 42. artikuluan xedatutako kasuak: urteko kontu finkatuak formulatzeko arauetako I. kapituluko lehen atalean araututakoak. Arau horiek abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuaren bidez onartu ziren.

**Lau.** Ez-egoiliarren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, Espainian diren establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakiokeen eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

**AZKEN XEDAPENA**

Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko uztailaren 22a. - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Dicho modelo de comunicación se compone de dos ejemplares, uno para la Administración y otro para el interesado.

**Segundo.- Obligados a presentar el modelo 848.**

**Uno.** Estarán obligados a la presentación del modelo 848 los sujetos pasivos del Impuesto sobre Actividades Económicas que sean contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de No Residentes y no presenten declaración de estos últimos impuestos en el Territorio Histórico de Álava.

**Dos.** En el caso de las sociedades civiles y de las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria, la obligación de presentación del modelo 848 a que se refiere el apartado Uno anterior será aplicable a los socios, herederos, comuneros y partícipes de las referidas sociedades civiles y entidades.

No obstante, la obligación de presentación del modelo 848 no será aplicable cuando las sociedades civiles y las entidades del artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria hayan consignado el importe del volumen de operaciones en alguna declaración tributaria presentada en el Territorio Histórico de Álava.

**Tres.** En los supuestos de grupos de sociedades en el sentido del artículo 42 del Código de Comercio, la comunicación del importe del volumen de operaciones deberá efectuarse por las sociedades dominantes, si bien deberán relacionar en el modelo 848 el Número de Identificación Fiscal de todas las entidades del grupo.

**Tercero.- Lugar y plazo de presentación del modelo 848.**

**Uno.** El modelo 848 se podrá presentar en el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Diputación Foral de Álava. Asimismo se podrá enviar por correo ordinario o certificado dirigido a la mencionada Oficina.

**Dos.** El modelo 848 deberá presentarse en el período comprendido entre el 1 de enero y el 14 de febrero, ambos incluidos, del ejercicio en que deba surtir efectos dicha comunicación en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

**Cuarto.- Determinación del importe del volumen de operaciones del sujeto pasivo.**

**Uno.** El volumen de operaciones del sujeto pasivo se determinará de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Dos.** El volumen de operaciones será, en el caso de los sujetos pasivos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades o de los Contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de No Residentes, el del período impositivo cuyo plazo de presentación de declaraciones por dichos Tributos hubiese finalizado el año anterior al del devengo del Impuesto sobre Actividades Económicas.

En el caso de las sociedades civiles y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria, el volumen de operaciones será el que corresponda al penúltimo año anterior al de devengo del Impuesto sobre Actividades Económicas.

Si el período impositivo hubiera tenido una duración inferior al año natural, el volumen de operaciones se elevará al año.

**Tres.** Para el cálculo del volumen de operaciones del sujeto pasivo, se tendrá en cuenta el conjunto de las actividades económicas ejercidas por el mismo.

Cuando la entidad forme parte de un grupo de sociedades conforme al artículo 42 del Código de Comercio, las magnitudes anteriormente indicadas se referirán al conjunto de entidades pertenecientes al grupo. Igualmente se aplicará este criterio cuando una persona física por sí sola o conjuntamente con otras personas físicas unidas por vínculos de parentesco en línea directa o colateral, consanguínea o por afinidad, hasta el segundo grado inclusive, se encuentran en relación a otras entidades de las que sean socios en alguno de los casos a que se refiere el artículo 42 del Código de Comercio.


A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, se entenderá que los casos del artículo 42 del Código de Comercio son los contemplados en la sección 1ª del Capítulo I de las normas para la formulación de las cuentas anuales consolidadas, aprobadas por Real Decreto 1.815/1991, de 20 de diciembre.

**Cuatro.** En el supuesto de los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de No Residentes, se atenderá al volumen de operaciones imputable al conjunto de los establecimientos permanentes situados en territorio español.

**DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.


Vitoria-Gasteiz, a 22 de julio de 2003. - El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

 <b>Arabako Foru Aldundia</b> Diputación Foral de Alava <small>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Salla</small>		<b>EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA</b> <b>ERAGIKETEN ZENBATEKOAREN JAKINARAZPENA</b>			<b>848</b>	
IDENTIFIKAZIOA	IDENTIFIKAZIO ETIKETA IPINTZEKO GUNEA				EJZren ekitaldia: <input type="text"/>	
					Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagokion ekitaldia jarri	
	IFZ		Deiturak eta izena edo sozietatearen izena			
	Helbide fiskala			Etxe zk.	Letra	Solairua - aldea
Udalerria			Posta kodea		Probintzia edo L. historikoa	
<b>2 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa</b>						
Eragiketen zenbatekoa (EZ) ..... <input type="text"/> (1) (Aurreko urtean aurkeztu behar izan zen aitopenari dagokion epealdiko EZ jarri. Adibidez, 2003an aurkeztu beharreko jakinarazpenerako, jarri 2002an aurkeztu zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitopenari dagokion EZ, hau da, 2001eko zerga ekitaldikoa).						
<b>3 Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergaduna, establezimendu iraunkorren bidez diharduena.</b>						
Eragiketen zenbatekoa (EZ) ..... <input type="text"/> (1) (Aurreko urtean aurkeztu behar izan zen aitopenari dagokion epealdiko EZ jarri. Adibidez, 2003an aurkeztu beharreko jakinarazpenerako, jarri 2002an aurkeztu zen Sozietateen gaineko Zergako edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako aitopenari dagokion EZ. Hau, normalean, 2001ean hasitako zerga ekitaldikoa izango da.)						
<b>4 Sozietate zibila edo Zergen Foru Arau Orokorren 33. artikuluan aipatutako entitatea.</b>						
Eragiketen zenbatekoa: azkenurrenaren aurreko ekitaldiari dagokiona ..... <input type="text"/> (1) (Adibidez, 2003an, jarri 2001eko EZ)						
<b>5 Sozietate Taldea, Merkataritza Kodearen 42. artikulua.</b>						
Taldeko entitate multzoaren eragiketen zenbatekoa ..... <input type="text"/> (1) (Aurreko urtean aurkeztu behar izan zen aitopenari dagokion epealdiko EZ jarri. Adibidez, 2003an aurkeztu beharreko jakinarazpenerako, jarri 2002an aurkeztu zen Sozietateen gaineko Zergako edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako aitopenari dagokion EZ. Hau, normalean, 2001ean hasitako zerga ekitaldikoa izango da.)						
Taldeko entitateen IFZ (2) .....		1 <input type="text"/>	6 <input type="text"/>	2 <input type="text"/>	7 <input type="text"/>	3 <input type="text"/>
		4 <input type="text"/>	9 <input type="text"/>	5 <input type="text"/>	10 <input type="text"/>	
<b>6 Establezimendu iraunkor bat baino gehiago daukaten ez-egoiliarak.</b>						
Establezimendu iraunkorren multzoak Espainiako lurraldean egindako eragiketen zenbateko garbia ..... <input type="text"/> (1) (Aurreko urtean aurkeztu behar izan zen aitopenari dagokion epealdiko EZ jarri. Adibidez, 2003an aurkeztu beharreko jakinarazpenerako, jarri 2002an aurkeztu zen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako aitopenari dagokion EZ. Hau, normalean, 2001ean hasitako zerga ekitaldikoa izango da.)						
Establezimendu iraunkorren IFZ (2) .....		1 <input type="text"/>	2 <input type="text"/>	3 <input type="text"/>	4 <input type="text"/>	5 <input type="text"/>
(1) Jarri zenbateko osoa, hamartarrik gabe. Zergaldiak urtebete baino gutxiago iraun badu, eragiketen zenbatekoa urtebetara goratuko da. (2) Dokumentu honetan aurreikusitakoak baino entitate gehiago jarri behar izanez gero, dokumentuaren behar adina kopia erantsi.						
<b>7 Ordezkaria</b>						
NAN/IFZ		Deiturak eta izena edo sozietatearen izena			Telefonia	
Helbidea: kalea edo plaza			Zenbakia	Letra	Eskailera	Solairua Aldea
Udalerria		Posta k.	Probintzia		Gakoa	
Lekua eta data..... Subjektu pasiboaren edo bere ordezkariaren izenpea						

**848 EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK**

Nork jakinarazi behar du eragiketen zenbatekoa?

- EJZren subjektu pasiboek, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergadunak badira, eta azken zerga hauen aitortpenik aurkezten ez badute Arabako Lurralde Historikoan.
- Sozietate zibilak edo ZFAOren 33. artikuluko entitateak izanez gero, ez dute jakinarazi beharrik izango, baldin eta Arabako Lurralde Historikoan aurkeztutako zerga-aitortpenen batean eragiketen zenbatekoa adierazi badute.
- Sozietate talde bateko kide diren entitate menderatzaileak, Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera.

 <b>Arabako Foru Aldundia</b> Diputación Foral de Alava <small>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila      Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</small>		<b>IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS</b> <b>COMUNICACIÓN DEL IMPORTE DEL VOLUMEN DE OPERACIONES</b>			848											
IDENTIFICACIÓN	ESPACIO RESERVADO PARA LA ETIQUETA IDENTIFICATIVA				Ejercicio IAE: <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>											
	Consigne el ejercicio correspondiente al Impuesto sobre Actividades Económicas															
	N.I.F.		Apellidos y nombre o razón social													
	Domicilio fiscal				Nº casa	Letra	Piso - mano									
Municipio			Código postal	Provincia o T. Histórico												
<b>2 Sujeto pasivo del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas</b>																
Importe del volumen de operaciones (IVO) ..... <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> (1) (Consigne el IVO referido al período cuya declaración debió presentarse en el año anterior. Por ejemplo, para la comunicación a presentar en 2003, consígnese el IVO correspondiente a la declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas presentada en 2002, el cual, será el referido al ejercicio fiscal del 2001).																
<b>3 Sujeto pasivo del Impuesto sobre Sociedades o contribuyente del Impuesto sobre la Renta de no Residentes que actúe mediante establecimiento permanente</b>																
Importe del volumen de operaciones (IVO) ..... <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> (1) (Consigne el IVO referido al período cuya declaración debió presentarse en el año anterior. Por ejemplo, para la comunicación a presentar en 2003, consígnese el IVO correspondiente a la declaración por el Impuesto sobre Sociedades o el Impuesto sobre la Renta de no Residentes presentada en 2002, el cual, normalmente, será el referido al ejercicio fiscal iniciado en 2001).																
<b>4 Sociedad Civil o Entidad a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria.</b>																
Importe del volumen de operaciones: Correspondiente al antepenúltimo ejercicio ..... <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> (1) (Por ejemplo, en 2003 consigne el IVO de 2001)																
<b>5 Grupo de Sociedades, artículo 42 Código Comercio</b>																
Importe del volumen de operaciones del conjunto de las Entidades del Grupo ..... <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> (1) (Consigne el IVO referido al período cuya declaración debió presentarse en el año anterior. Por ejemplo, para la comunicación a presentar en 2003, consígnese el IVO correspondiente a la declaración por el Impuesto sobre Sociedades o el Impuesto sobre la Renta de No Residentes presentada en 2002, el cual, normalmente, será el referido al ejercicio fiscal iniciado en 2001).																
NIF de las entidades del Grupo (2) ..... <table style="width: 100%; border: none;"> <tr> <td style="width: 50%;">1 <input type="text"/></td> <td style="width: 50%;">6 <input type="text"/></td> </tr> <tr> <td>2 <input type="text"/></td> <td>7 <input type="text"/></td> </tr> <tr> <td>3 <input type="text"/></td> <td>8 <input type="text"/></td> </tr> <tr> <td>4 <input type="text"/></td> <td>9 <input type="text"/></td> </tr> <tr> <td>5 <input type="text"/></td> <td>10 <input type="text"/></td> </tr> </table>							1 <input type="text"/>	6 <input type="text"/>	2 <input type="text"/>	7 <input type="text"/>	3 <input type="text"/>	8 <input type="text"/>	4 <input type="text"/>	9 <input type="text"/>	5 <input type="text"/>	10 <input type="text"/>
1 <input type="text"/>	6 <input type="text"/>															
2 <input type="text"/>	7 <input type="text"/>															
3 <input type="text"/>	8 <input type="text"/>															
4 <input type="text"/>	9 <input type="text"/>															
5 <input type="text"/>	10 <input type="text"/>															
<b>6 No residentes con más de un establecimiento permanente</b>																
Importe Neto del volumen de operaciones en territorio español del conjunto de establecimientos permanentes ..... <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> (1) (Consigne el IVO referido al período cuya declaración debió presentarse en el año anterior. Por ejemplo, para la comunicación a presentar en 2003, consígnese el IVO correspondiente a la declaración por el Impuesto sobre la Renta de No Residentes presentada en 2002, el cual, normalmente, será el referido al ejercicio fiscal iniciado en 2001).																
NIF de los establecimientos permanentes (2) ..... <table style="width: 100%; border: none;"> <tr> <td style="width: 50%;">1 <input type="text"/></td> <td style="width: 50%;">6 <input type="text"/></td> </tr> <tr> <td>2 <input type="text"/></td> <td>7 <input type="text"/></td> </tr> <tr> <td>3 <input type="text"/></td> <td>8 <input type="text"/></td> </tr> <tr> <td>4 <input type="text"/></td> <td>9 <input type="text"/></td> </tr> <tr> <td>5 <input type="text"/></td> <td>10 <input type="text"/></td> </tr> </table>							1 <input type="text"/>	6 <input type="text"/>	2 <input type="text"/>	7 <input type="text"/>	3 <input type="text"/>	8 <input type="text"/>	4 <input type="text"/>	9 <input type="text"/>	5 <input type="text"/>	10 <input type="text"/>
1 <input type="text"/>	6 <input type="text"/>															
2 <input type="text"/>	7 <input type="text"/>															
3 <input type="text"/>	8 <input type="text"/>															
4 <input type="text"/>	9 <input type="text"/>															
5 <input type="text"/>	10 <input type="text"/>															
(1) Consígnese el importe íntegro sin decimales. En el caso de que el período impositivo haya tenido una duración inferior al año, el importe del volumen de operaciones se elevará al año. (2) En el supuesto de tener que consignar más Entidades de las previstas en este documento, adjunte cuantas copias del mismo sean necesarias.																
<b>7 Representante</b>																
D.N.I./N.I.F.		Apellidos y nombre o razón social			Teléfono											
Dirección, Calle o Plaza			Número	Letra	Escalera	Piso	Mano									
Municipio		Código postal	Provincia			Clave										
Lugar y fecha ..... Firma del Sujeto Pasivo o de su representante																

**INSTRUCCIONES - MODELO 848**

Obligados a comunicar el importe del volumen de operaciones:

- Sujetos pasivos del I.A.E.; que sean contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes y no presenten declaración de estos últimos impuestos en el Territorio Histórico de Álava.
- En el caso de sociedades civiles y entidades del art. 33 de la NFGT no deberán comunicar cuando hayan consignado el importe del volumen de operaciones en alguna declaración tributaria presentada en el Territorio Histórico de Álava.
- Entidades dominantes que formen parte de un Grupo de sociedades, según el art. 42 del Código de Comercio.